

LEHENENGO ENTZUNGAIA. (5 puntu)

Ariketa honetan Euskadi Irratiko bost informazio entzungo dituzu. Zuk ariketa honetan (A-K) esaldiak dituzu, eta entzungo duzun informazio bakoitza dagokion esaldiarekin parekatu behar duzu beheko taulan. *0 zenbakia* adibidea da, eta bost esaldi sobran daude.

Esaldiak

- A. Aplikazio informatikoak ere euskaraz egitearen alde daude.
- B. Akordio bila dabilta ETB digitala Nafarroan ikusi ahal izateko.
- C. Dagoeneko erabakita dago: Nafarroan ezin izango da ETB digitala ikusi.
- D. Dohain bereziak dituen emakume baten esperientzia kontatu dute.
- E. Etor zaitezte "Vascongada" jatetxera!
- F. Europako zenbait herrialdek Espainiako tabakoaren aurkako legea ezarri nahi dute.
- G. Hemendik aurrera Espainian erretzeko debekua gogortuko dute.
- H. Heriotzari lotutako informazioa eman dute.
- I. Internet bidez izena emateko sistema berria ezarri nahi dute datozen urteetarako.
- J. "On line" izena emateko sistema kolapsatuta geratu zen.
- K. Sonia Agirrek kontatu du txikitako dohainak galdu dituela.

Informazioa	0	1	2	3	4	5
Esaldia	A					

BIGARREN ENTZUNGAIA. (5 puntu)

Ariketa honetan Euskadi Irratiko *Arratsaldekoa* saioan Pello Etcheverry editoreari egin dioten elkarrizketa entzungo duzu 2 aldiz.

Aukeratu erantzun egokia (a, b, c), adibidean bezala (0 zenbakia).

0. Irratsaio honetan nor elkarrizketatu dute?
- a) Pello Etcheverry historialaria.
 - b) Pello Etcheverry editorea.
 - c) Argazkilaria.
6. Pello Etcheverry editorea eta Pello Etcheverry historialaria. Bi hauek...
- a) elkar ezagutu dute liburuaren promozioa egiteko garaian.
 - b) lehenagotik elkar ezagutuagatik ere, liburuaren proiektuak elkartu ditu.
 - c) liburuari zor diote elkar ezagutu izana.
7. Iparraldeko jendea eta Euskal Herriko historia. Liburuaren egileen esanetan...
- a) Dauden materialek ez dituzte hangoak E Hko historiara erakartzen.
 - b) Espero zuten baino gehiago dakite hangoek E Hko historiaz.
 - c) Hangoek E Hko historiaz oso gutxi jakinagatik, interes ikaragarria dute.
8. Euskal Herriko mugak. Pelloren ustez,
- a) Ezagun du gaur egungo nahiz iraganeko EHko mugak zehaztea kontu zaila dela.
 - b) Liburuaren helburuetako bat izan da gaur egungo E Hko mugak zehazitzea.
 - c) Liburuan gaur egun Euskadiko Erkidegotzat hartzen den lurraldera mugatu dira.
9. Egileek liburu honetan aukeratu dituzten 40 toki hauetan...
- a) euskara ez da inoiz mintzatu izan.
 - b) euskarak tinko iraun du erromatarren garaitik gaur egun arte.
 - c) euskaraz mintzatu izan da noizbait.
10. Euskal Herriko historia erakusten duen liburu batean Aragoiko toki bat sartzeak zera adierazten du.
- a) Aragoiak Euskal Herriaren parte izan beharko lukeela.
 - b) Historia, historia dela, besterik gabe.
 - c) Historian zehar lurraldeen mugak aldakaitzak, irmoak direla.

Galdera	0	6	7	8	9	10
Erantzun egokia	B					

HIRUGARREN ENTZUNGAIA. (5 puntu)

Ariketa honetan Euskadi Irratian *Arratsaldekoa* kultur saioan *Ander* filmari buruzko zehaztasunak entzungo dituzu 2 aldiz.

Aukeratu erantzun egokia (a, b, c), adibidean bezala (0 zenbakia).

0. Zein da filmaren izenburua?

- a) *Aitziber*.
- b) *Alazne*.
- c) *Ander*.

11. Non ikusi ahal izango da *Ander* filma lehendabizi?

- a) *Berlinalen*.
- b) *Panorama* sailean.
- c) *Zinegoak* jaialdian.

12. *Ander* filmaren protagonista...

- a) gizon bat da, bere barne munduan bizi dena.
- b) gizon bat da, *jazz*-a joz bizimodua ateratzen duena.
- c) nerabe bakarti bat da, ama eta arrebarekin bizi dena.

13. Anderri Peruko etorkinaren etorrerak...

- a) aspaldiko sentimentuak esnaraziko dizkio berriro.
- b) ez dio ordura arteko bizimodua aldaraziko.
- c) ordura arte inoiz sentitu ez zituenak azalaraziko dizkio.

14. Roberto Castónek, *Ander* filmeko zuzendariak, ...

- a) 5 filmetan ikusi du *Ander* filmaren gai bera.
- b) ez du batere loturarik *Zinegoak* jaialdiarekin.
- c) filma gertatzen den tokian oinarritzen du bere filmaren orijinaltasuna.

15. *Ander* filma honako istorioan oinarritzen da:

- a) *Ander* izena duen bati benetan gertatu zitzaien batean.
- b) Urtarrilaren 30ean pasatu zen benetako gertakizun batean.
- c) Zuzendariak asmatu zuen batean.

Galdera	0	11	12	13	14	15
Erantzun egokia	C					